

Uxue Razquin Olazaran

EREIN ARGITALETXEKO
EDITOREA



HANDITAN EDITORE IZAN NAHI DUT

“Txikitatik amak liburuak oparitu dizkit, eta banekien liburuekin zerbait egin nahi nuela. Amari esaten nion editore izan nahi nuela. Irakurri nahi nuen, autoreak deskubritu, haiekin bide bat egin. Baina horretarako ez da ikasten, ez dago karrera bat, eta zaila da mundu horretara sartzea. Ez dago Infojob-sen eskaintzarik: “Editorea behar dugu”. Bartzelonan liburu saltzaile ibili nintzen FNACen, eta liburuekin kontaktuan nengo. Banuen hori buruan, baina amets bat zen. *Berriarako* eta *Deiarako* idazten nuen, eta emakume zientzialarien erreportajeak ere, EHUko Kultura Zientifiko-koto Katedrarentzat. Iruñera itzuli nintzeanean Ereinetik deitu ninduten, eta esan zidaten ikusia zutela nire izena sare sozialetan. Lana eskaini zidaten, eta baietz esan nuen, bi aldiz pentsatu gabe.

“Momentu batzuetan gogoia dut esateko: aizu, lasai, ni laguntzeko nago”

Mundu berri bat deskubritzen ari denaren modura mintzo da Uxue Razquin (Iruñea, 1992), Erein argitaletxeko editore berria. “Beti liburu bat eskuan” du idatzia Twitterreko bere soslaian, eta hala omen da, txikitatik. Baina inoren eskuetara heldu aurretik liburuak egiten duen bide osoa ezagutzen ari da orain. Azken batean, elkarrizketa hau egiterako, hilabete baino ez darama editore lanetan.

ANDER PEREZ JOSU SANTESTEBAN

Nola doa egokitzapena?

Pozik nago, baina urduri ere bai, lan zamagatik. Ereineko lan taldeak asko lagundu nau, ez nago bakarrik; editorea naiz, baina baditut ondoan beste sailletako langileak. Nik ez dut oso ongi ezagutzen liburuen sektore osoa. Produktua ezagutzen dut, baina liburu-dendara iritsi arte egiten den prozesu guztia ez nuen ezagutzen. Nire lana da eskuizkribuak iristerakoan irakurri eta balio duten edo ez erabakitzea eta idazleekin harremana izatea, baina jakin behar dut ere beste pausuak zeintzuk diren, eta asko ikasten ari naiz.

Espero zenuena topatu duzu?

Oso erromantizatua nuen ofizioa. Txikitatik amari esaten nion editore izan nahi nuela, ongi jakin gabe zer zen. Imajinatzen nuen sofa bat, liburuak iritsi eta asko irakurri. Baina eskuizkribu asko iristen dira oso denbora murriztean, eta hori kudeatzea oso zaila da. Bat irakurtzen hasten naizenerako beste hiru dauzkat postan. Nik ongi irakurri nahi dut, liburu batek zertan egiten duen huts ikusi, edo nola laguntzen ahal diodan idaz-

le bati. Eta horrek eskatzen du mundu osoa ezagutzea: ematen du logela batean zaudela sartuta, eta inorekin ez duzula hitz egiten, baina bai zera, badakizu noiz doan inprentara, nola egin duten azala... Ate asko izaten dira irekita, eta hori kudeatzen ikasi behar dut.

Bada tokirik iristen zaizuen denerako?

Ez. Ni kanpoan bizi izan naiz, eta euskal literaturatik pixka bat deskonektatua ibili izan naiz, nola dagoen, zer kontsumitzen den. Ikusten ari naiz liburu asko argitaratzen direla, eta irakurleok ez dugula denborarik erritmo horri jarraitzeko. Asko dago, eta dena ezin dugu sartu. Eta ezetza ematea oso zaila da.

Literaturazale batentzat, lanik onena da editorearena?

Orain baietz esango dizut, baina urtebete barru... [barrez]. Uste dut asko sufritzen dela. Ez idazleekin, e! Hori oso polita da, egiten dituzu harremanak, jendea ezagutu... Baina nik, adibidez, sufritzen dut ezetz esatearekin; azkenean, idazle batek eman



"Eskuizkribu asko iristen dira oso denbora murriztean, eta hori kudeatzea oso zaila da. Bat irakurtzen hasten naizenerako beste hiru dauzkat postan".

dizu beretzat oso intimoa den zerbait, eta zuk irakurtzen duzu, eta zure irizpideen arabera, esaten duzu: "Bada ez". Kostatzen zait hori, baina are garratzagoa da horren erantzuna jasotzea. Batzuetan ez dute ulertzen, eta badirudi editorea dela idazlearen antagonista. Eta kontrakoa da, editoreak lagundu behar du idazlea bere ibilbidean, obra ahalik eta hobereana izateko. Momentu batzuetan gogoia dut hori erantzuteko: aizu, lasai, ni laguntzeko nago.

Editorearentzat idazlea zer da?

Denetarik da. Lankide bat da, berarekin lanean zaudelako, produktu bat egiten. Idazketa oso gauza individuala da, baina editoreak lagundu behar du, batzuetan coach moduko bat ere bada. Demagun idazlea ataskatua dagoela, ez dakiela paragrafo bat nola egin, edo liburua nola bukatu. Editoreari dagokio hor egotea, laguntzen.

Baina prest egon behar du maite dituen idazleekin haserretzeko?

Oraindik ez dit denborarik eman [barrez], baina bai. Bakoitzak izango ditu bere arazoak, zeren eta, azkenean, nahi duzuna da liburu hori ongi egotea, gero

gustatu ala ez. Eta batzuetan, horra iristeko, haserrealdiak izaten dira. Baina edozein harremanetan gertatzen da hori.

Editoreak idazle izan behar du?

Ez du zertan, baina esango nuke editore gehienek idazten dutela. Nik beti idatzi dut, txikitatik, baina ez dut ezer publikatu, kajoian daude paperak. Uste dut zerbait idatzi behar duzula, hobeto ezagutzen dituzulako idazle baten prozesuak. Ez da ezinbestekoa, baina lagungarri da. Beharrezkoa dena irakurtzea da, pista asko ematen dizkizu horrek.

Aldatu zaizu irakurtzeko modua?

Bai eta ez. Aurretik ere oso irakurketa analitikoak egiten nituen. Batzuetan plazerzko irakurketak direnetan ere bilatzen ditut erratak eta abar, obsesio pixka bat badut. Baina disfrutatuta izan dut bakarrik istorio baten irakurketaz, bestea ahaztuta. Orain, lehen irakurketa batean oso analitikoa izaten naiz, eta akatsak edo hutsuneak bilatu. Baina gustatzen zait bigarren irakurketa batean, gauza horiek azpimarratuta ditudala, irakurlea banintz bezala irakurtzea.

Sarri ematen duzu sare sozialetan

literaturaren berri. Ze toki du literaturak eremu horretan?

Uste dut lekua baduela. Nik natural bizi dut, zerbait gustatzen zait eta igotzen dut sare sozialetan. Paisaiekin egiten dugun bezala: hemen gaude, mendi honetara igo gara, hor duzu argazkia. Modu horretan ikusten dut; liburu hau irakurtzen ari naiz, gustatzen zait eta gomendatzen dizuet.

Asko zarete azkenaldian euskal editore gazteak.

Zikloak dira, eta bazen beharra. Ereinen gertatu da, Igelan, Txalapartan... Aldaketak izan dira eta gazteok hartu dugu lekukoa. Beharrezkoa zen, baina oso modu naturalean etorri da, argialetxeek ikusi dute mundua aldatzen ari dela alor guztietan, eta jende gaztea behar dela literaturan. Oso jarrera irekia eta naturala ikusi dut.

Eta asko zarete nafarrak. Kasualitatea da?

Sentsazioa dut Nafarroa beti izan dela mugimendu baten erdigune, batez ere kulturaren, eta ez bakarrik literaturan. Beti ikusi dut gazteria gauzak egiteko prest. ●